



Tolosako Euskararen Aholku Kontseilua osatzen duten kideak, ekimenak aurkezten. JOSU ARTUTXA

Herrietan gazteek duten errealitatea aztertzen ari dira

Inkesta bat egin eta gazteekin hainbat saio egin eta gero herri txikietan gazteek duten egunerokoa ikertzen ari dira, horren arabera dituzten beharrak identifikatzeko // **5**

Ibaigain pasealekua egokitzea hautatu dute irurarrrek

Udalak abian jarritako parte hartze prozesu bidez aukeratu dute herritarrek egokien ikusi duten proiektua; lanak laster hasiko dituzte // **2**

Udazken kulturaldia egingo dute datozen asteetan

Pintxopotearekin hasiko dira bihar sanandresak Berrobin; abenduaren erdira arte luzatuko dira kultur ekitaldiak // **6**

Ligaren herena gaintututa, hamabigarren postuan da Lauburu Ibarra

Areto futboleko 2.B mailako taldeak lau onenen artean sailkatzeko helburuarekin jarraitzen du // **7**

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana onartuko dute gaur

Euskararen alde lan egiteko Tolosako beharretara egokitutako tresna izango da; euskararen egunaren harira ekitaldiak antolatu dituzte, eta denbora-pasen liburuxka ere argitaratu dute // **4**

BETERANOEN PARTIDUA

Real Sociedad-C.A. Osasuna

27, larunbata

17:30

Berazubiko estadioa, Tolosa

Puzgarriak eta tailerrak txikienentzat 16:00etatik 19:00ak bitartean, Berazubi inguruan.

*Puzgarriak instalatuko dira ala ez, egiten duen eguraldiaren arabera.

BABESLEA
PATROCINADOR

logikalline

LAGUNTZAILEAK
COLABORADORES

Tolosa C.F. eta Tolosako Udala
Tolosa C.F. y Ayuntamiento de Tolosa

brulebide

ANTOLATZAILEA
ORGANIZADOR

REAL SOCIEDAD
FUNDATZIOA

Txikitik Handira
proiektua



GI-3650 errepidearen egoeraz aritzeko aldundiarekin bildu da udala

Irurako Udalak aurkeztutakoa aztertze konpromisoa agertu du Bide Azpiegituretako departamentuak

Erredakzioa Irura

Irurako Udaleko ordezkari bat Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako departamentuko arduradunekin bildu zen azaroaren 11n, Kale Nagusia zeharkatzen duen GI-3650 errepideko trafikoarekin herritarrek dituzten arazoei buruz hitz egiteko.

Irurako Udalak, GEA21 enpresaren laguntzarekin, hilabeteak pasa ditu gaiaren alor nagusiak jasotzen dituen txosten bat osatzen. Bertan, modu zehatz batean aurkitu daitezke egoeraren diagnostikoa, herritarren pertzepzioaren inguruko datuak eta konponbiderako proposamenak.

Bileraren helburu nagusia aurkezpena egitea izan zela esan dute udaleko iturriek, «elkarlanean lehenengo pauso izan dadin». Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak konpromisoa hartu dute udalak aurkeztutako proposamena aztertze eta departamentuko teknikarien bidez analisi propioak egiteko.

IRAGARKI LABURRAK

Salgai

Txerriak. Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak salgai. Interesatuak deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

Sagarak. Bidania-Goiatzen eskuz bildutako errezil sagarra salgai. Interesatuak deitu 652 7187 51 telefono zenbakira.



Ibaigain pasealekuaren irudi bat gaur egun; zorua naturala da. ATARIA

Pasealekuaren zorua egokitzea erabaki dute herritarrek

Irurako Udalak parte hartze prozesua jarri du martxan azken hilabete eta erdian eta herritarrek Ibaigain pasealekuan lanak egitea hobetsi dute

Erredakzioa Irura

Ibaigain pasealekua egokituko du Irurako Udalak, azkeneko asteotan martxan jarritako parte hartze prozesuan herritarrek egokien ikusi duten proiektua izan baita. Ibai ondoko ibilbidean, adin guztietako herritarrek paseatzen dute egunero. Orain arte modu naturalean mantendu da zorua, baina orain, material trinkoago batekin egokitzea proposatu dute herritarrek. Zoru berriarekin, eu-

riak sortzen duen lokatza ekidindago da, eta batez ere, adineko edo desgaitasun fisikoa dutenentzat irisgarriagoa izango da. Parte hartze prozesuan parte hartu duten 103 herritarren %37,9k egin du aukera honen alde.

Aukeratua izan den proiektuaren lanak egiten hasiko da aurki udala, baina jakinarazi duenez, etorkizunera begira, parte hartze prozesuan parte hartu duten beste proiektuak ere hartuko ditu kontuan, beste egitasmoek proze-

suan jaso duten eskaera kopurua ikusita.

Besteak beste, garbileku plaza-ko argiztapena eta segurtasuna hobetzearen alde agertu da herritarren %36,9. Eraikin publiko guztietan energia xahuketa murrizteko neurriak hartzearen alde agertu da %18,4 eta babes txikiagoa lortu dute bestelako proiektuek: Bi hilabetez behin, bigarren eskuko arropa edo tresnen azoka antolatzeak; Irurako herriaren lurren mugak zehaztu eta herritarrei ezagutarazteak; edota jai eta ospakizunetarako erabiltzen diren buruhandi eta erraldoi berriak erostek.

Urrian abiatu zuen Irurako Udalak parte hartze prozesua. Hainbat proposamen jaso ondoren, teknikoki proiektu bakoitzaren azterketa eta balorazioa egin zuen. Proposamenei oniritzia emateko, besteak beste, interes publikokoa izatea, udalaren kompetentzia izatea eta teknikoki bideragarria izatea hartu zuten kontuan udal ordezkariak. Onartutako proiektua aurreikusitako diru kopuruarekin bateragarria izatea ere eskatzen zuten. Udalak, 2021ean, 30.000 euro erreserbatu ditu herritarrek egindako proposamenekin inbertsioak egiteko.

PROZESU ABERATSA

Azaroaren 8tik 12ra bozkatu ahal izan dute herritarrek, udaletxera edo kulturunera gerturatuta, edo bestela, telematikoki, udalaren webgunean edo Irurako mugikorrenzako aplikazioan. 16 urtetik gorako herritarrek eta erroldatuta egon ez arren, bertan jardueraren bat egiten duten pertsonak izan dute botoa emateko aukera. 103 pertsonak hartu dute parte bozketan, %60 emakumezkoa, eta %40 gizonezkoa.

Irurako Udalak eskerrak eman dizkie prozesuko parte hartzaileei. «Horrelako ariketak egitea garrantzitsua zaigu herritarrek ahalduzko eta norabide horretan pausoak ematen jarraitzeko», esan dute udal ordezkariak.

Hogei bide identifikatu dituzte osatu duten herri bideen sarean

Inventarioaren behin-behineko proposamena urtarilaren 3ra arte egongo da ikusgai Anoetako udaletxean

Erredakzioa Anoeta

Anoetako herri bideen inventarioa osatu du Conchi Uriarte nekazaritza ingeniariak, eta behin-behineko proposamena aurkeztu du. Anoetako Udalak joan den martxoan jarri zuen abian prozesua, eta hainbat helburu zituen lanketak, horien artean, bide bakoitzari lege izaera propioa aitortzea eta horien erabilera arautzea.

Inventarioak lege balioa ematen die bide horiei, eta besteak beste, arautu egiten du noren eskumena diren mantenu lanak eta zein garraibidek erabil ditzaketen. Guztira hogei herri bide identifikatu ditu Uriartek inventarioan eta hainbat informazio iturri erabili ditu horretarako: lehenik, herritarren ahozko lekukotzak bildu ditu; ondoren, berriz, informazio hori dokumentu ofiziale-tan kontrastatu du, kasurako, eskriturretan, eta Anoetako Udalaren zein Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistroetan.

PROPOSAMENA IKUSGAI

Behin-behineko proposamena urtarilaren 3ra bitarte izango da ikusgai udaletxean: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 13:00etarako ordutegian, hirugarren solairuko Ingurumen bulegoan. Horrez gain, udala zuzenean jarri da harremanetan berrogei lur jabeekin eta alegazioak aurkezteko aukera eman die. Uriarterekin hitzordua jartzeko aukera ere zabaldu du.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 LA PERLA

Bi lagunentzako Forman jartzeko Talaso Zirkuitua

Kontxako pasealekua z/g DONOSTIA
943 45 88 56
la-perla.net
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera

aquariumss.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52



3 ALAKRANA DE ECHEBASTAR

Produktu sorta

Erroxape kaia - 48370
BERMEO
946 18 65 00
alakrana.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53



Parte hartzeko deitu 902-82 02 40 telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako asteazken, ostegun eta ostiral goizean. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

Olentzaroren basora bisita antzeztuak egingo dituzte

Tolosako Elozegi parkean abenduaren 17tik 23ra egingo dituzte, 20ko taldeetan; azken bisita helduei zuzendutakoa izango da

Erredakzioa Tolosa

Zumardia elkarte, Tolosako Udalaren laguntzarekin, Elozegi parkea atontzen ari da, Olentzaroren basoa herritarrei zabaltzeko. Abenduaren 17tik 23ra egingo dituzte ordubete iraungo duten ibilaldiak, 20 pertsonaz osatutako taldeetan, 17:30ean hasita. Aurten, berritasun moduan, azken bisita, 20:10ekoa, helduentzat izango da.

Zumardiatik esan dutenez, Eguberria ate joka dugun honetan, «Olentzaroak berezkoa duen soiltasuna egitura eta argiztapen xumez jantziz» ari dira Elozegi parkea prestatzen.

Bisitek Eguberriaren zentzua berreskuratzea dutela helburu azaldu du Zumardiak; «kontakizunean, eguzkiak neguko solstizioan duen lekua izango da ardatz nagusia, eta honi loturik, usadio zaharrak gogoratuko ditugu, zeintzuk naturaren men-

peko herri nekazari baten beharrei erantzuten dien. Aldi berean, garai haietan bereziki emakumeek egiten zituzten lanen garrantzia bistaratu nahi dugu». Hori bai, ez dela Olentzerorik egongo gogoratu dute, «baina bertan dauden elementuek, etengabe, milaka begi dituela gogoraziko digute».

Aurtengo berritasunetako bat da azkeneko hitzordua helduei bakarrik zuzendutakoa izango dela; baina, ez da nobedade ba-



20ko taldeetan egingo dituzte bisita antzeztuak Elozegi parkean. ZUMARDIA

karra izango, kontakizun eta ibilbidean ere zenbait aldaketa txertatu baitituzte.

Bisitetan izena eman nahi duenak, larunbatean, azaroaren 27an izango du horretarako aukera, aurrez aurre, Tolosako Antxon Bandres bidaiarien txokotan. 11:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 19:00etara egin ahal-

ko da. Abenduaren 1etik aurrera, berriz, *online* eman ahalko da izena, *Zumardia.eus* web orrian.

Sarrera doakoa izango den arren, elkartasun kutxa egongo da irteeran eta borondatezko ekarpen ekonomikoa eskatuko zaio bisitari bakoitzari. Bildutakoa Aita Mari Itsas Salbamendu proiektuari emango diote.

GUTUNA

Egoera klimatikoa larria da

Aldaketa klimatiko barruan sartuta gaude, badiara 30 urte baino gehiago ikertzaileak aldaketa honen datuak gelditu gabe ematen ari direla (ozono kapa, munduko tenperaturaren igoera, espezie desberdinen desagertzea, klima aldaketa...) bere eragina zein den azalduz. Zientzialarien artean gutxi dira hau zalantzan jartzen dutenak.

Gizarte garatuenen eraginez gehien bat, karbono arrastoa etengabe gora eta gora doa eta Euskadin berdin gertatzen da. Datuak eta grafikoak zehatzak dira, non Barne Produktu Gordinaren igoera eta karbono arrastoaren igoera erlazionatuta agertzen diren.

Gu, hemen Euskadin, bizi garen kontsumo mailan planetako biztanle guztiak biziko balira, gaurko baldintza ekologikoak mantentzeko 2,6 mundu planeta

beharko genituzke. Ezin dugu horrela jarraitu.

Ardura denena da, denok aztertu behar dugu zein den uzten dugun gure karbono arrastoa, baina ardura nagusia gure arduradun politikoei eta ekonomikoek dute. Hauek badakite errealtatea zein den, baina zezena adarretatik heldu ordez (datuak bere gordintasunean eman gabe) itxurakerian eta zurikeri hutsean gelditzen dira. Egia da, ezker politika bultzatzen dutenak behintzat, gaia azaleratzen saiatzen ari direla.

Eta Tolosan berdin gertatzen ari da. Saiatuko naiz gaur eguneko bi adibide zehatz jartzen.

1. Une honetan, Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko Tokiko Planaren zirriborroa irekita dago, ekarpenak jasotzeko prest.

Oso ondo, teoriarik perfekto. Baina zenbat indar jartzen da horrelako garrantzia duen gaia herritarren benetako inplikazioa bilatzen? Mugikortasunaren sektorea aztertuz, *garraioarekin*

lotutako isuriek gora egin dute eta egun Tolosan BEG (Berotegi Efektuko Gasen isuriak) igoerpenetan eragin nabarmenena duen sektorea da diote agintariek. Eta gauza handi bezala, martxan zero emisioko autobus elektriko bidezko Hiribus Zerbitzua jarri dute.

Mugikortasunak asko kutsatzen du baina hala ere, hemen eta han jarraitzen dugu turismoa indar guztiarekin bultzatzen eta jendeari produktu hau kontsumitzera animatuz. Ikusi besterik ez dago mediatikoki gai hau nola erabiltzen den. Entzun eta ikusiko dugu zenbat milioi kotxe, hegazkin, autobus, ... mugitzen diren asteburuetan, zubietan edo opor garaietan. Ondoren aipatuko ditugu turismoak dituen onura ekonomikoa. Baina inoiz ez dugu aipatzen uzten duten karbonoaren arrastoa eta ondorioz ingurumenari eragiten dion kaltea.

Era berean, aipatu nahi nituzke merkantzien garraioan gure

herritik pasatzen diren kamioiak, furgonetak... Urteetan, kontsumismoa, deslokalizazioa eta globalizazioa izan dugu helburu eta orain munduko beste puntatik ekarri behar ditugu elikagaiak, jantzi eta oinarritzko produktuak, sortzen duten karbono kutsadura eta menpekotasunarekin. Guzti horrek bere prezioa beharko luke izan. Zerga politika egoki baten bitartez bertako ekoizpena bultzatu behar da.

2. *Aleka*, Tolosako udal aldikaria begiratz gero, lehenengo orrian irakurri daiteke *Tolosa eraberritzen. Trabajando por un municipio más agradable, seguro y accesible*. Eta nik uste dut *más eficiente energéticamente* erantsi beharko genukeela sinistuko bagenu Aldaketa Klimatikoari seriozki aurre egin behar diogula.

Galdera batzuk egin nahi nituzke. Kalkulatu al dituzue espaloiak eta errepideak maila berean jartzeko zoruak berritzean eta proiektu berrietan zenbateko

karbono arrastoa uzten den? Obra horiek, gauden egoeran, ez al doaz betiko garapen bidean, karbono emisioak handituz? Ez al genituzke gai hauetan (erakuntza berriak, obrak...) eta energiaren kontsumoan, gizarte bezala dauzkagun kontraesanak azaleratu behar?

Daukagun garapen eredu *desarrollista* honekin gure planeta lehertzeri doa. Ekonomiaren lobbyek agintzen dute eta politikoei men egiten dute, beren eskuetan dago ardura nagusia baina guk, banakakoek ere, asko dugu egiteko. Beste eredu ekonomiko bat behar dugu, kontsumoak ezin du ekonomiaren motor nagusia izan, desazkunde ekonomikoa (*economía del decrecimiento*) planteamendua aztertzen hasi behar dugu.

Planeta bakarra daukagu. Desazkundera da bidea. Ez hazkundearen ekonomiari, bai desazkundearen ekonomiari.

Pello Ezeiza Tolosa

Egin zure erreserba abenduaren 22a baino lehen. 943 65 56 95 / atarikide@ataria.eus

Lagundu Atarikide sarea zabaltzen



Igor Agirre (Galtzaundi Euskara Taldea), Xabier Balerdi (Tolosako Udala) eta Maixabel Zubillaga (Aitzol Udal Euskaltegia) ekimenak aurkezten, atzo. JOSU ARTUTXA

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana eguneratu dute Tolosan

Gaur jorratuko dute azaroko osoko bilkuran, udalbatzak onartu dezan; ekitaldi sorta antolatu dute hainbat eragilek, abenduaren 3aren bueltan

Josu Artutxa Dorronsoro

Tolosako Udalak eta herriko eragileek euskararen aldeko apustu irmoa egiten jarraitzen dute. Horrela, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, eta euskararen ezagutza eta erabilera sustatzen jarraitzeko, ekitaldiak antolatu ditu udalak, hainbat eragilerekin elkarlanean. Xabier Balerdi, Tolosako euskara zinegotziak adierazi duenez, «euskararen presentzia eta erabilera nabarmen areagotu da Tolosan azken urteetan, hainbat alorretan egindako lanari esker. Elkarlanaren emai-

tza da euskarak Tolosan izandako gorakada».

Lankidetzaren horretan urrats berriak ematen jarraitzeko asmoz eta «euskararen alde lan egiteko grinak bultzatuta», Euskararen Aholku Kontseilua abiatu zuen udalak, eragile desberdinekin batera. «Kontseiluak lan mardula egin du Euskara Sustatzeko Ekintza Plana berri eta eguneratzeko», esan du Balerdik. «Horregatik, parte hartzaile guztiek azaldutako konpromisoa eta egindako lan eta ahalegina eskertu nahi dugu», gaineratu du.

Hain justu, gaur egingo dute

Tolosako udaletxean azaroko osoko bilkura, eta bertan jorratuko da 2022-2024 aldirako Tolosako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, udalbatzak onartu dezan. Ondoren, herritarrei aurkeztuko diete. Maixabel Zubillaga Aitzol Udal Euskaltegiaren zuzendariaren esanetan, plan hori, «herriko premietara dimentsionatutako lanabesa» izatea nahi du kontseiluak. Horretarako, aurreko planaren ebaluazioa egin dute, gaur egungo argazkia ateratzearekin batera, hurrengo urteetako proposamenak aurreikusiz eta beharren azterketa burutuz.

«Tolosan euskararen presentzia eta erabilera handia bada ere, askoz ere handiagoa izatea nahiko genuke», aitortu du Zubillagak.

Azkenik, denbora-pasen liburuxka bat ere argitaratu du udalak: *Laukiz lauki Tolosan barrena*. «Euskara hutsean sortutako liburuxka da, herriari eta herritarrei buruzko jolasak, hitz jokoak, informazioa, bitxikeria eta hainbat datu biltzen dituen», azaldu du zinegotziak. Dagoeneko eskuragarri dago udaletxean, Aitzol Udal Euskaltegian eta Galtzaundi Euskara Taldearen egoitzan.

EGITARAUA

Azaroak 29, astelehena

18:30. Zer egin dezakegu gurasoak seme-alaben hizkuntza ohituretan eragiteko? hitzaldia, Iñaki Eizmendi hezitzaileak gidatuta, Tolosako udal-letxeko pleno aretoan. Haurrekin harremana dutenei zuzendutako saioa: senideak, zaintzaileak...

Abenduak 1, asteazkena

18:30. Euskararen Historia Soziala Tolosaldean ikerketaren lehen zatia aurkeztuko da, Tolosako udal-letxeko pleno aretoan. 1936tik aurrera euskarak eskualdean izandako ibilbideari buruzko ikerketa aurkeztuko du Haritz Azurmendi ikertzaileak. Espainiako Gerraz geroztik, ezagunak diren zenbait gertakizunen eta ezkutuan zeuden beste zenbaiten inguruan ikertutakoa azalduko du.

Abenduak 2, osteguna

17:00-19:00. Euskarari buruzko ezagutza Wikipediaren alantegia, Tolosako kultur etxean. Urte guztian zehar martxan dagoen Tolosalde-edia proiektuaren baitan kokatutako mintegi berezia. Wikipedian editatzen dakitenek zein ez dakitenek auzolanean parte hartzeko aukera izango dute. Parte hartzeko beharrezkoa da ordenagailua eramatea.

Abenduak 3, ostirala

20:30. Irabaziantzez lana, Jon Plazaola aktorearen eskutik, Leidorren.

Abenduak 11, larunbata

12:00. Gure Bertso Zirkua ikuskizun berezia: haurrentzako saioa. Oihana Iguaran, Unai Mendizabal eta Haritz Mujika bertsolariak eta Gure Zirkuko artistak. Sarrerak larunbat goizean egongo dira salgai, Galtzaundin eta Subijana etxean. Prezioa: 5 euro.

18:00. Gure Bertso Zirkua ikuskizun berezia: helduentzako saioa. Maddalen Arzallus, Andoni Egaña, Alala Martin eta Julio Soto bertsolariak eta Gure Zirkuko artistak. Gai-jar-tzaileak: Imanol Artola Felix eta Iker Iriarte. Sarrerak larunbat goizean egongo dira salgai, Galtzaundin eta Subijana etxean. Prezioa: 13 euro.



Dagoeneko zabalik da Anoetan Lizarraga harategia, zatoz!
(lehenago Juanjo harategia)

Herriko enparantza 2, 20270 Anoeta • 943651194



Gazteen errealitatean sartuta ari dira lanketa egiten

Eihera kooperatiba Albiztur, Alkiza, Altzo, Bidania-Goiatz, Ikaztegieta, Larraul eta Lizartzan ari da lanketa egiten gaztetxoekin

Eneritz Maiz Etxarri

Gipuzkoako hamar herri txikitan gazteen errealitatea jasotzen ari dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak duen Gaztematika egitasmoaren barruan ari da lanean Eihera Koo-

peratiba. Eiherako kidea eta hezitzailea da Sara Del Rio Loiarte eta Aitor Galdosekin batera eskualdeko herri txikietan lanketa egiten ari da. Eskualdeko Albiztur, Alkiza, Altzo, Bidania-Goiatz, Ikaztegieta, Larraul eta Lizartzan,

eta baita Aizarnazabal, Beizama eta Olaberrian ere.

Hasteko, aldundia eta herrieta-ko udal ordezkariekin elkartu ziren Eiherakoak. «Elkarlanean ateratako proiektua da», dio Del Riok. Udalak izan dira gazteekin harremanetan jarri direnak. Eihera kooperatibaren lehen lana udalekin elkartzea izan dela kontatu du Del Riok: «Herri bakoitzaren errealitatea zein den ikusi dugu. Gazteekin zein harreman duten edota gazteekin zein motatako gatazkak egon diren». Hori eta gero, herri bakoitzean lanketa ezberdinak egin dituzte herri bakoitzera egokituta: «Nahiko antzekoak dira herri guztietan egoerak, bakoitzak bere berezitasunak izan arren».

Beraien artean ematen diren gatazkak, botere harremanak,... lantzen dituzte, eta «genero ikuspegitik lantzeko erremintak eskaini dizkiegu», dio hezitzaileak, eta «gai diferenteen gainean hitz egin dugu».

Proiektuan herri bakoitzari

bost saio eskainiko dizkiote. Irailan hasi ziren eta abenduan Gabonen aurretik bukatuko dute. Urrian hasi ziren gazteekin elkartzen, eta 12 eta 18 urte arteko gazteekin ari dira. Malgutasunez, beti ere, herrietako errealitatea kontuan hartuta.

Herrien egoeraren arabera, bi talde egin dituzte edota bakarra. «Adin kontuengatik edo beraien talde naturalak bi direlako herrian», esan du Del Riok. Azken batean lanketa hobeto egin ahal izatea bilatu dute.

Lehen saioan, gazteengana hurbiltzeko, dinamika edo jolas txikien bidez saiatzen dira gerturatzeko, eta beraien herria nola ikusten duten edota zein den beraien egoera zehazten dute. «Herrian nolako jarrera matxistak ikusi dituzten, bizi izan dituzten, LGTBI gaiak edota LGTBI-fobiak, helduekiko harremanak, hau da, nola tratatzen dituzten, udal-tertxea moduko agenteak, gurasoak, zein aisialdi aukera duten, aisialdi horretan zer pasatzen zaien

edota zein joera duten; herri handiagoetara joatekoa edo ez», argitu du. Horrez gain, zenbait herri-tan gazte lokalak dituzte, eta horiei zein erabilera ematen dieten eta zein gatazka dituzten ere hitz egiten dute. Nola ez, COVID-19aren egoera nola bizi izan duten ere mahai gainean jarri dute. Herriaz ere aritzen dira, eta nola ikusten duten etorkizunean, zein aldaketa eman beharko lirakekeen beraiek herrian gustura egoteko edota nolako herria nahi duten galdetzen diete.

«Zer den generoa, zein genero identitate dauden, edota sexu lehenetasunaren inguruan; kontzeptuak bereizteko eta kontzeptuak hobeto ulertzeko», azaldu du. Guzti hori landuta, «horren arabera zein behar zehatz dituzten ikusten dugu», dio Del Riok, eta gaineratu du, «gazteak hurbiltzen dira, eta gogotsu daude. Ikasteko eta gaiak lantzeko gogoia dute».

Abenduan, lanketa eginda, ondorioak aterako ditu Eihera Kooperatibak.

«Gure artean harremanak sendotzeko egokia izan da»

MAIDER IRAOLA, ALAITZ ARAMENDI ETA ENERITZ ETXEBERRIA GAZTEAK

E. Maiz Albiztur

Maidar Iraola, Alaitz Aramendi eta Eneritz Etxeberria albizturtarrak dira, eta hamabost urte dituzte. Herrian Eihera kooperatiba egiten ari den aholkularitza lanean parte hartu dute.

Zergatik parte hartu duzue?

Maidar Iraola. Orain dela hila-bete inguru inkesta bat bidali zitzaigun esateko ea prest geunden honelako elkarriketetara joateko, eta gure harremanak sendotzeko. Hor bertan ordutegiak-eta esan zizkiguten, eta inkestan bertan esaten genuen prest egongo ginen parte hartzeko edo ez.

Eneritz Etxeberria. Inkesta erantzun genuen gehienok prest azaldu ginen, eta beraz hitzaldi hauek egitea erabaki zuten. Eta inkesta bete genuen gehienak azaldu gara.

Zenbat gazte zaudete gutxi gorabehera Albizturren?

Alaitz Aramendi. Mutilak eta neskek aparte gaude. Lehenengo

neskok egin dugu, eta orain mutilak ari dira. DBHkoak gara gehienok.

Etxeberria. Nesketan zortzi bat gara, eta mutiletan 10 edo 12.

Parte hartze handia ari da izaten, beraz, Albizturren.

Etxeberria. Bai. Normalean honelako ekimenak ez dira egiten. Gutxi egiten direnez gustura hartu dugu.

Aramendi. Berria izan da.

Zuek hiru saioak egin dituzue.

Eroso sentitu zarete?

Etxeberria. Ondo. Hezitzaileek konfiantza ematen ziguten eta lagunekin hitz egitea bezala izan da.

Zein gai jorratu dituzue.

Iraola. Lehenengo saioan LGTBIaren gainean aritu ginen. Bigarrenean, harremanak. Gure artekoak edo familia artean, eta baita herrian ere.

Etxeberria. Herriko gazteekin eta zaharragoekin ere bai. Eta gero sexualitateaz aritu ginen.

Balio izan dizue zuei elkartzeko?



Maidar Iraola, Alaitz Aramendi eta Eneritz Etxeberria albizturtarrak, herriko liburutegian. E. MAIZ

Iraola. Normalean herri txikietan denak batera ibiltzen gara. Kuadrillakoak gara. Eta balio izan digu LGTBIaren gainean ikasteko. Gauza batzuk gaizki ikasten ditugu entzun dugunetik-eta.

Aberasgarria egin zaizue?

Aramendi. Bai, denoi.

Entzunak zaretela sentitu duzue?

Aramendi. Orain gehiago, garrantzi gehiago ematen zaigula ematen du.

Iraola. Lehen aparteago geundela uste dut.

Etxeberria. Ikusita gustura egon garela, honelako ekimen gehiago jartzea espero dugu.

Aramendi. Albizturren ondo zaintzen gaituztela uste dut. Lokala eman ziguten, eta bilera horietan esan zaigu ondo egin genuela eskatzearekin.

Saioen dinamikak harritu zaituzte?

Aramendi. Nik behintzat *txapa* gehiago izatea espero nuen. Beraiek hitz egin, eta gu isilago egongo ginela, baina ekimen bidez izan da gehiago. Jolastu egin dugu eta parte hartu.

Etxeberria. Nahiko dinamikoa zen. Denok ibili gara jolasten.

Iraola. Nik uste dut gustura joaten ginela denok.

Neska eta mutilak banatu dituzue. Hitz egin duzue?

Iraola. Oraindik ez dute bukatu, baina esan ziguten berez gustura egon zirela; ez dugu hitz egin.

Etxeberria. Guke egindakoan ere galdetu ziguten ea nola joan zitzaigun. Ordutik ez dugu hitz egin.

Zergatik banatu zarete?

Iraola. Aparte ibiltzen gara, eta gainera gure adineko mutilak ez daude, txikiagoak dira. Ez dugu hainbesteko harremanik.

Aramendi. Baina aurrera begira gu prest gaude beraiekin egiteko.

Nahikoa izan da?

Iraola. Ondo, baina batzuetan egiteko. Askok izanez gero agian nazkatu egingo ginen.

Etxeberria. Nik oraingoz horrela utziko nuke, eta hemendik hila-betera-edo berriz egingo nuke.

Aramendi. Gutxi gorabehera astean behin egin ditugu hiru saioak.

Nola definituko zenukete?

Aramendi. Interesgarria. Gauza berriak ezagutzeko, eta gure artean harremanak sendotzeko egokia izan da.

Etxeberria. Eta zer sentitzen dugun konpartitzeko. Normalean geratzen garenean ez dugu horrelako gaiez hitz egiten, eta honelako hitzaldietan aukera dugu hitz egiteko.

Iraola. Gehiago irekitzen zara. Ikusi dugu kezka asko denok genituela, eta horietarako irtenbideak aurkitzen-eta aritu ginen.

Abendu erdira bitartean udazken kulturaldia ospatuko dute Berrobin

Hurrengo egunetan sanandresak ospatuko dituzte, pintxopote, merienda, talo, musika eta bakarriketarekin; abenduaren 10era bitarte jarduera gehiago prestatu dituzte

Irati Saizar Artola

Berrobin udazkeneko kulturaldia ari dira ospatzen. Datozen egunetan, sanandresak izango dituzte, baina kulturaldian aitzakia gehiago ere hartu dituzte egitaraua osatzerakoan, besteak beste, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna edota Euskararen Nazioarteko Eguna. Abenduaren 10era bitartean, beraz, jarduera ezberdinez gozatzeko aukera izango dute herrian.

Herenegun, esaterako, ahal-duntze tailerra egin zuten, Txalo Talo taldearen eskutik, eta atzo, berri, eboluzioa eta nortasunaren garapenaren inguruko ikastaroa egin zuten. Bihartik aurre-



2018ko sanandresetan, haurrak 'Trakamatraka' ikuskizunari begira. M.IRAOLA

ra, sanandresak ospatuko dituzte eta hasiera pintxopotearekin emango diote. Bien bitartean, Matraka elektrotxarangak alaituko ditu Berrobiko kaleak.

Egitaraua prestatzen, Euskara batzordea, Ibin Kirol Kluba, Guraso Elkarte, Txalo-Talo taldea, eta Berrobiko Udala aritu dira elkarlanean.

EGITARAUA

Abenduaren 21a bitarte

Erakusketa. Herria argazki erakusketa, udaletxean. Goizez egunero irekita eta arratsaldeaz astearte eta ostegunetan.

Azaroak 26, ostirala

19:00-21:00. Pintxopotea Matraka elektrotxarangarekin.

Azaroak 27, larunbata

Frontenis txapelketa. Herriko frontoi.

18:00. Merienda eta ondoren Mini-diskoa gazteentzako, gaztetxean.

Azaroak 28, igandea

Frontenis txapelketa. Herriko frontoi.

Arratsaldean. Bakarriketaren enpatia Unai Ormaetxea umoregileraren eskutik.

Ondoren. Talo jatea Etxolan.

Abenduak 3, ostirala

Euskararen Nazioarteko Eguna.

17:00. Altxorraren bila.

18:00. Txokolate beroa.

18:30-20:30. Bertso poteoa.

Abenduak 4, larunbata

Frontenis txapelketako finala. Herriko frontoi.

Abenduak 10, ostirala

18:30. Zuloak antzezlan, Pasaiko Badia eskolako Zaskanduri taldearen eskutik, sexu heziketaren inguruan hausnartzeko.

Pilotalekua eta kirol pista berrituko dituzte

David de Miguel Berrobiko alkateak agintaldiko balantzea egin, eta egitekoak dituzten proiektuen berri eman du

I.S.A.

Agintaldiaren erdia beteta, David de Miguel Berrobiko alkateak esan du alkatetzako bi urteak «ilusioz beterikoak» izan direla, pandemiak lana «zaildu» badu ere. «Osasun, ekonomia eta gizarte krisiak sakonki markatu du agintaldia, eta tokiko gobernua erabakitasunez egin dio aurre». Hala, bi urteen balantzea egin du, eta herriko 250 etxebizitzetan banatu duten aldizkari batean eman du horren berri.

Etorkizunari begira egingo dituztenak ere aipatu dituzte aldizkarian, eta alkateak iragarri du pilotalekua eta kirol pista eraberrituko dituztela, paretak margotuz eta bankuak jarritz. Horrez gain, kantxako zorua eta ekipamendua berrituko dute, kirol anitzeko pista bihurtzeko. Proiektu horrek 90.000 euroko inbertsioa eskatzen du.

Bestalde, autobus geltokia eraberritu nahi dutela ere azaldu du, «erabiltzaileak autobusa iritsi arte euratitak babesteko markesina bat jarritz». Eta esertzeko banku bat ere jarriko dute.

TOKIKO ENERGIA KOMUNITATEA

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izandako lankidetzari esker, Berrobiko bizilagunentzako Tokiko Energia Komunitate bat eratzea sustatuko da. «Proiektu hori sekulako aurrera-

pausoa izango da udalerriko trantsizio ekologikorako, eta gainera, poltsikorako onuragarria izango da; alegia, Berrobiko TE-Kan izena emanda daudenek, gutxi gorabehera %20 aurreztuko dute argiaren fakturan».

Horretarako, udal estalkietan espazioak utziko dituzte plaka fotovoltaiakoak jartzeko, hala nahi duten herritarrek energia elektrikoa autokontsumitzeko aukera izan dezaten, «betiere etxebizitza eskolatik 500 metro-ra dagoenean». De Miguelek azaldu duenez, egunean zehar elektrizitatea sortuko da, etxeek kontsumitu dezaten, eta gainerako orduetarako tarifa merkeagoa lortzeko negoziatu beharko du energia komunitate osoak. Gainera, eskolako patioan instalatzen 70 eguzki plaka jarri dituzte, eskola, udaletxea eta gainerako udal eraikinak hornitzeko, faktura elektrikoa murriztuz.

Espazio publikoan ere hobekuntzak egin dituzte, irisgarritasuna helburu. Urrian hasi ziren Atsedean kalean baldosazko espaloi berri bat egiteko obrak. Eta oinezkoentzat lagungarri diren barandak ere jarri dituzte, besteak beste, herriko plazako eskailetan, Ermita auzoko eskolako behealdean, udaletxeko aldapan, elizako eskaileretan eta Sorone aldean. Horrez gain, aurtengo lanetan, eskola atariko haurren parkea ere berritu dute.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Taldeak itxura ona eman zuen



Aulkitik

Lore Etxaburua

Tolosa CF, 1. Maila Nazionala

Bistan da, azkenaldian kopuruz justu gabiltzala baina hori ez da aitzakia lanean jarraitzeko eta gure helburuen bila borrokan segitzeko.

Ezohiko orduan bazkaldu eta eguerdian abiatu ginen Tolosatik Iruñerantz. Ligako talde sendoenetako baten aurka lehiatzea tokatzen zitzaigun oraingoan, baina horren aurrean ez garela txiki egiten demostratzeko gogoz joan ginen; erronka zailen aurrean erantzun bat emateko gai garela erakutsi nahi genuen, eta halaxe egin genuen.

Partida hasieratik taldeak defentsa aldetik oso itxura ona eman zuen. Bagenekien Osasunaren aurka defentsa lan ona egitea garrantzitsua zela, kalitatezko taldea baita, eta beraz atzean sendo mantendu ginen. Zailtasunak betetako jokaldi baten ondoren 1-0 galtzen jarri ginen nahi baino lehen, baina ez ginen kikildu, gure jokoa egiten jarraitu genuen eta aukera batzuk ere izan genituen. Baina oraingoan zortea ez genuen alde izan eta baloia ez genuen sarean sartzea lortu.

Gol bakarrek aldearekin joan ginen atsedenaldira, eta atsedenaldiaren ostean helburua argia zen, gogor segitzea lanean eta honela gola bilatzea. Saiatu arren ez ziren gauzak nahi bezala aterata eta azken zazpi minutuetan 2 gol sartu zituzten eta halaxe bukatu zen partidua, 3-0. Taldeak itxura ona eman zuen eta orain akatsetatik ikasi eta hurrengo partida prestatuko dugu pausoz pauso gure helburua lortzeko. Asteburuan Realaren bisita jasoko dugu, igandean 16:30ean Berazubín. Animatu zaitezte, denen laguntzarekin errazagoa izango baita 3 puntuk etxean geratzea.

Aupa neskek!

Lehen mailakoen txapela jokoan

TOLOSA // Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkora Txapelketa Nagusia izango da jokoan, igandean, Tolosan. Beotibar pilotalekuan egingo da eta 12:00etan hasiko da. Bertan Hodei Ezpeleta, Luis Mari Txapartegi, Xabier Zaldua, Oier Kañameres, Iban Resano eta Jose Antonio Etxeberria aizkolariak izango dira.

Su-Berriko pilotariak txapeldun Gipuzkoan

ANOETA // Ezker Hormako Klubaren Arteko Gipuzkoako Txapelketan, Anoetako Su-Berri irabazi du nagusien 1. mailako gomazko paletako finala. Su-Berriko Leire Galdos eta Maider Mendizabalek 30-27 irabazi zioten Hernaniri. Larunbat honetan, 17:00etan eta Zumarragan, txapelketa berean eta nagusien 2. mailan, Anoetako Kuku elkarteko Alain Luisa eta Aratz Luisak Altxatarra elkartearen aurkako finala jokatuko dute.

Ekaitz Kortajarena irabazle master mailan

HALTEROFILIA // Azaroaren 13an eta 14an egin zen Espainiako Master Txapelketa eta bertan izan ziren Danok Danenako hiru pultsulari. Ekaitz Kortajarena txapeldun geratu zen M35 taldean, 61 kiloko mailan, eta gainera zazpi errekor lortu zituen. M40 taldean, Andres Rubiños txapeldunorde izan zen 67 kiloko kategorian. Adin bereko taldean, Aitor Tecedorrek 102 kiloko kategorian bere gorputz pisuan marka onena egin bazuen ere, ezin izan zuen dominarik ekarri, txapelketan eskatzen zuten gutxiengo marka egitera iritsi ez zelako.

Miren Larrarte, txapeldunorde

BIDANIA-GOITZ // Miren Larrarte bidaniarra txapeldunorde geratu da Elite World OneWall Tour txapelketan. Larunbatean jokatu zuen finala, eta bi finalistek set bana irabazi ondoren, hiru galdunetako 11-9 galdunetako Larrartek. Bestalde, Emakume Master Cup txapelketan bere lehen neurketa irabazi ondoren, ostiralean final-laurdenetako lehia izango du Larrartek. Urduñan jokatuko du eta aurkaria Olatz Arrizabalaga izango da.

Hasieran ona ez izan arren, esperantzaz begiratzaren diote ligari

Partiden herena pasa ondoren, areto futboleko 2. B mailako Lauburu Ibarra hamabigarren postuan dago, baina lau onenen artean sartzeko helburuari eusten diote

Imanol Garcia Landa Ibarra

Ez da denboraldi erraza izaten ari 2. B mailako Lauburu Ibarra taldearentzat. Hamar jardunaldi pasa direnean, ligaren herena hain justu, hamabigarren postuan dago areto futboleko taldea, hamabi punturekin. Bere multzoan hamasei talde dira, eta azken lauak mailaz jaisten dira. Halere, Xabi Juaristi kapitainak azaldu duenez, beraien helburua lehen lau postuetan bukatzea da: «Lehenengo lauek igotzea da gure asmoa».

Azken partidaren, etxetik kanpo jokatutakoan, Villa de Quel taldearen aurka 4-5 irabazi ahal izan zuten. «Hasiera batean aukera dezente izan genituen golak sartzeko, baina ez ginen oso fin ibili. Nahiz eta alde handirekin ibiltzeko aukera izan, sufritzen bukatu genuen», esan du Juaristik. «Baina beharrezko hiru puntu izan ziren, denboraldi hasiera ez baita erraza izan, eta behar genuen etxetik kanpo horrelako garaipen bat».

Zortzi jokalariren baja izan dute denboraldi honetan eta hori nabaritu egin dutela gaineratu du kapitainak. «Aurreko urteko blokeari jarraipena ezin emate horrek zailtasun asko sortzen dizkigu. Fitxaketa berriekin, nahiz eta kalitate handiko jokalariek ekarri, bloke bat osatu



Xabi Juaristi, Belabietan, Otxartaberen aurka jokatutako partidaren. GARAZIARREGI

gabe izateak egunerokotasunean zailtasunak ekartzen ditu, besteak beste, jokoan beharrezkoak diren automatismo horiek ondo funtzionatzeko», zehaztu du. Jokalari nafarrek utzi egin dute taldea, eta aurreko urtetik lau jokalaririk bakarrik geratu dira. Bost fitxaketa berri egin dituzte eta gero jubenilak ere ekarpen handia egiten ari dira lehen taldera. «Elkar ezagutu eta talde bezala jakin behar dugu jokatzen, eta horretan ari gara».

Lehen lau postuetan sartzeko ez dute hain urruti, hala badirudi ere egun dute sailkapeneko postua begiratzeko gero. Horren arrazoia oso liga berdindua izaten ari dela da. Egun laugarren

postuan dagoen taldea, bost puntura dute. Eta bosgarren postuan dagoena bi puntura besterik ez dago. «Ikusten da edozein edozeini irabazteko gai dela, eta nahiz eta hasiera kaskarra izan, ez gaude hain urruti, eta horrek ere esperantza puntu bat ematen digu lehen postuen borrokan egoteko», dio Juaristik.

Asteburu honetan partida zaila dute etxean Lauburuok. Sailkapenean lider sendo dagoen Tafa taldea izango dute aurkari larunbatean, 18:30ean, Belabietan. «Ezustekoa emateko gai gara, eta posible dugu aurreko asteburuan izandako sentsazioei jarraipena ematea», azaldu du kapitainak.

BILLABONA FKE	
Arratzain futbol zelaia	
INFANTIL TXIKI MAILA Larunbata 27, 10:00etan	1. KADETE MAILA Larunbata 27, 12:00etan
BILLABONA F.K.E. BEASAIN S.D.	BILLABONA F.K.E. ARRUPE CHAMINADE C.D.
1. JUBENIL MAILA Larunbata 28, 16:00etan	OHOREZKO JUBENIL MAILA Larunbata 28, 18:15ean
BILLABONA F.K.E. LAZKAO K.E.	BILLABONA F.K.E. BEASAIN S.D.
Billabona Fke	

TOLOSAKO UDALA	
IRAGARKIA	
Tolosako Udalbatzak, bi mila eta hogeita bateko irailaren hogeita hamarrean, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honakoa erabaki zuen:	
BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA ASUNCION KLINIKAREN ERAIKINA HANDITU AHAL IZATEKO XEHETASUN AZTERLANARI.	
Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da 2021eko azaroaren 22an, 223. alean.	
Tolosan, 2021eko azaroaren 23an	
Alkatea	
Olatz Peon Ormazabal	



OSTEGUNA, 2021EKO AZAROAK 25
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaledea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 25

AGENDA

A25

Tolosa. Tolosaldea Lanbide Heziketako egokitzapen fisikoko ikasleek emanaldiak eskainiko dituzte: 08:15ean Tolosaldea Lanbide Heziketako Institutu Integrarean egongo dira, 10:15ean Orixen institutuan eta 12:15ean Inmakuladan.

Irura. Zer da guretzat genero indarkeria? erakusketa, 18:00etan Irura Moretuz emakume taldearen ekitaldia plazan, eta 19:00etan elkarretaratzea.

Asteasu. Elkarretaratzea eta argazkia 18:30ean, plazan.

Alegia. Manifestazioa 18:30ean, plazatik abiatuta.

Ikaztegieta. Kazerolada 18:30ean, zubian.

Berastegi. Elkarretaratzea 18:30ean, plazan.

Bidania-Goiatz. Txinkorta eskolan Maite nauenak ondo tratatzen nau ekimena eta 19:00etan elkarretaratzea, frontoi aurrean.

Anoeta. Elkarretaratzea 19:00etan, plazan.

Altzo. Elkarretaratzea plazan 19:00etan eta 19:30ean Bauboi ipuin kontaketa, Batzarremuñon.

Tolosa. Manifestazioa 19:00etan, Trianguloa plazatik.

Amasa-Villabona. Manifestazioa 19:00etan, Malkar plazatik.

Ibarra. Elkarretaratzea 19:30ean, plazan.

Deialdiak

Aduna. Xexili musika kontzertua 18:30ean Frontoi Zaharrean, baina euria eginez gero elizan.

Lizartza. Sagarrondoan urte osoko zainketa hitzaldia, Eneko Salarekin, 18:30ean udal aretoan.

Larraul. Evaren alabak taldearen antzerki ibiltaria herrian zehar 18:30etik aurrera.

Amezketa. Emakumea eta errepresio frankista Aranzadiko Lurdes Errastiren eskutik, 19:00etan.

+FARMAZIAK

Gaur

AMASA-VILLABONA. Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 1130.

TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra mendikalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro makurra izango dugu. Gogotik botako du, batez ere, goizean, non litro dezente pilatuko diren. Haizeak ipar/ipar-mendebaldetik bizi joko du eta temperatura jaitsi egingo da, 9-10 graduan joz goia. Elurra 1.000 metroan kokatuko da.



Bihar. Giro kaskarra. Egun osoan zerua estalita egongo da eta tarteka euria egingo du. Haizeak ipar/ipar-mendebaldetik joko du, arratsaldetik aurrera zakar. Tenperaturak 9-10 graduan joko du goia. Elur-maila 1.000 metroan kokatuko da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik

Gabon hauetan oparitu bertakoa, oparitu Ataria

Eguberri hauetan opari berezia egiteko aukera luzatu du 'Tolosaldeko Ataria'-k; oparitu urtebeteko harpidetza eta katilua eta koadernoak jasoko dituzu doan

Erredakzioa Tolosa

Bertakoa zaintzea ezinbestekoa dela azaleratu du pandemiak. Elkar zaintzea oso garrantzitsua da eta TOLOSALDEKO ATARIA-k bide horretan bere ekarpena egin nahi izan du. Gabonetarako eskaintza berezia prestatu du, bertako euskarazko kazetaritza, gertuko eta profesionala oparitzea izan daitekeelako aurtengo hau-tua. Izan ere, Gabonak gertu ditugu eta garai hauetan kuttunak ditugunei zer oparitu galdetzen diogu gure buruari. Horrekin laguntzeko, ATARIA-tik proposamen bat dakarkigu: Oparitu ATARIA-ko harpidetza urtebeterako eta jaso zuk ere opari bat zuretzat: ATARIA-ko katilua edo koadernoak.

Urtebetez ATARIA egunkaria eta astekaria etxeko buzoian jasotzeko aukera luzatzen dugu 83 euroren truke eta harpidetza digitala 55 euro ordainduta. Egin erreserba abenduaren 22a baino lehen, 943 65 56 95 telefonoan edo atarikide@ataria.eus helbide elektronikora idatziz, eta lagundu Atarikide sarea zabal-tzen. Egiten duzuna gara.



Katilua eta koadernoak jasoko dituzu doan, harpidetza oparitzerakoan. ATARIA



ZATOZ EUSKALTELERAZ AZAROAN ETA ESKURATU NETFLIX DOAN.

Ez al duzu ikusi behar **El Juego del calamar?**
Tolosa eta Beasaingo dendetan izango gaituzu.

*Eskaintzak epe-muga dauka